

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2022ko abendua

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak eta ostatu-gauak % 50 areagotu dira 2022an, 2021aren aldean

2022ko abenduan, sarrera kopurua % 31,8 hazi da eta ostatu-gauena, % 30,7, 2021eko abenduarekin alderatuta

2022. urtean, oro har, 3.340.493 sarrera izan dira, guztira, eta 6.442.631 ostatu-gau, Euskal AEko hotel-establezimenduetan, Eustaten datuen arabera. 2021. urteko hazkuntzei dagokienez, oro har, % 53,7koa izan da sarreretan eta % 54,2koa ostatu-gauetan.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak eta batez besteko egonaldia. 2022

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2022	p/p-1 (%)	2022	p/p-1 (%)	2022	2021
EUSKAL AE	3.340.493	53,7	6.442.631	54,2	1,93	1,92
Estatukoak	1.942.984	26,5	3.695.853	23,3	1,90	1,95
Atzerritarrak	1.397.509	119,6	2.746.778	132,4	1,97	1,86
Araba/Álava	452.766	43,5	844.546	38,4	1,87	1,93
Estatukoak	316.175	25,8	606.588	22,6	1,92	1,97
Atzerritarrak	136.591	112,8	237.958	106,5	1,74	1,80
Vitoria-Gasteiz	335.325	46,5	648.268	40,7	1,93	2,01
Bizkaia	1.513.570	59,0	2.893.131	57,9	1,91	1,92
Estatukoak	911.000	30,8	1.696.914	26,3	1,86	1,93
Atzerritarrak	602.570	135,5	1.196.217	145,0	1,99	1,91
Bilbao	1.038.192	64,4	1.978.327	66,0	1,91	1,89
Gipuzkoa	1.374.157	51,8	2.704.954	55,8	1,97	1,92
Estatukoak	715.809	21,6	1.392.351	20,2	1,95	1,97
Atzerritarrak	658.348	108,1	1.312.603	126,8	1,99	1,83
Donostia / San Sebastian	862.872	55,9	1.747.541	62,7	2,03	1,94

p/p-1 Azken aldian izandako urte arteko aldakuntza-tasa (p), aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (p-1)

Data 2023ko Urtarrilaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Lurralde historikoaren mailan, 2022an, Araban, hotel-establezimenduetako 452.766 sarrera izan dira, Euskal AEko % 13,6, guztira, eta 844.546 ostatu-gau, guztizkoaren % 13,1. Bizkaian, sarreraren % 45,3 izan dira, 1.513.570, eta ostatu-gauen % 44,9 izan dira, 2.893.131. Gipuzkoan, sarreraren % 41,1 izan dira, 1.374.157, eta 2.704.954 ostatu-gau, guztizkoaren % 42,0.

Zifra horiek erakusten dute Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, sarreraren % 43,5eko, % 51,8ko eta % 59,0ko urteko hazkuntza izan dela, hurrenez hurren. Ostatu-gauen portaera antzekoa izan da; 2022an, aurreko urtearekin alderatuta, % 38,4ko hazkuntza izan da Araban, % 55,8koa Gipuzkoan eta % 57,9koa Bizkaian. Nabarmentzekoak dira atzerritarren sarrera eta ostatu-gauen kopuruan Euskal AEn izan diren hazkuntzak, % 119,6koa eta 132,4koa, hurrenez hurren.

Hiru hiriburuen portaera dagokion lurraldearen gainerako tokietakoa baino hobeia izan da. Urte arteko hazkuntzak, urtean metatutako sarrera kopuruan, honako hauek izan dira: % 46,5ekoa Vitoria-Gasteizen, % 55,9koa Donostian eta % 64,4koa Bilbon. Ostatu-gauen kasuan, igoera % 40,7koa izan da Vitoria-Gasteizen, % 62,7koa Donostian eta % 66,0koa Bilbon.

Batez besteko egonaldia 1,93 egunekoa izan da Euskal AEn, 2022an, aurreko urtekoa baino pixka bat hobeia, 1,92 egunekoa izan baitzen. Arabaren kasuan, 1,87 egunekoa izan da eta, 2021ean, 1,93koa. Bizkaian, 1,91 egunekoa izan da eta, 2021ean, 1,92koa. Eta, Gipuzkoan, azkenik, 1,97 egunekoa izan da eta, aurreko urtean, 1,92koa.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2022

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2022	p.p. *	2022	p.p. *	2022	p/p-1 (%)	2022	p/p-1 (%)
EUSKAL AE	53,9	12,9	63,5	14,7	98,73	16,8	62,71	52,0
Araba/Álava	50,2	9,7	62,8	11,9	81,18	10,9	50,95	37,0
Vitoria-Gasteiz	50,2	9,5	65,7	12,5	67,80	6,7	44,53	31,8
Bizkaia	51,8	13,5	61,9	15,5	91,10	23,0	56,39	63,9
Bilbao	55,8	16,0	65,7	18,8	100,66	27,5	66,11	78,8
Gipuzkoa	57,8	13,3	65,7	14,7	113,07	12,5	74,30	45,1
Donostia / San Sebastian	62,8	13,9	69,2	15,2	138,84	14,3	96,12	46,4

p/p-1 Azken aldian izandako urte arteko aldakuntza-tasa (p), aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (p-1)

p.p.*= aurreko urteko portzentajeazko puntuko alde

Data 2023ko Urtarrilaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzailen Inkesta

2022. urteko okupazio-maila hotel-establezimenduetan, Euskal AEn, % 53,9koa izan da, plazen arabera neurtuta, eta % 63,5ekoa, gelen arabera neurtuta. 2021arekin alderatuta, igoera ehuneko 12,9 puntukoa da, plazen arabera okupazio-mailaren kasuan, eta 14,7 puntukoa, gelen araberekoaren kasuan.

Errentagarritasun-adierazleei dagokionez, 2022an, Euskal AEn, 98,73 eurokoa izan da ADRaren balioa eta 62,71 eurokoa RevPar, aurreko urtean baino % 16,8 eta % 52,0 gehiago.

2022ko abenduan, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek % 31,8 egin dute gora, eta ostatu-gauak, % 30,7, urte arteko terminoetan. Sarrerak, guztira, 239.673 izan dira, eta ostatu-gauak, 440.180.

2022ko abenduan, sarrera guztien % 28,9 eta ostatu-gauen % 29,1 atzerriko jatorrikoak izan dira; ehuneko horiek 2021eko abenduan izandakoak baino pixka bat handiagoak izan dira, orduan, atzerriarren sarrerak eta ostatu-gauak % 27,7 eta % 27,2 izan baitziren, hurrenez hurren. Estatuko jatorriko sarrera eta ostatu-gauen kopuruak gora egin du, urte artean, % 29,5 eta % 27,2, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak eta batez besteko egonaldia. Abendua 2022

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2022/12	m/m-12 (%)	2022/12	m/m-12 (%)	2022/12	2021/12
EUSKAL AE	239.673	31,8	440.180	30,7	1,84	1,85
Estatukoak	170.339	29,5	311.970	27,2	1,83	1,86
Atzeritarrak	69.334	37,9	128.210	40,0	1,85	1,82
Araba/Álava	37.472	37,9	67.985	30,2	1,81	1,92
Estatukoak	31.127	38,1	56.020	28,9	1,80	1,93
Atzeritarrak	6.345	36,6	11.965	36,5	1,89	1,89
Vitoria-Gasteiz	30.614	43,2	57.106	33,8	1,87	2,00
Bizkaia	110.040	31,5	202.744	28,9	1,84	1,88
Estatukoak	81.586	26,0	146.762	22,4	1,80	1,85
Atzeritarrak	28.454	50,4	55.982	49,6	1,97	1,98
Bilbao	80.849	37,1	148.893	35,3	1,84	1,87
Gipuzkoa	92.161	29,8	169.451	33,0	1,84	1,79
Estatukoak	57.626	30,2	109.188	33,2	1,89	1,85
Atzeritarrak	34.535	29,2	60.263	32,7	1,74	1,70
Donostia / San Sebastian	64.493	31,7	118.156	35,3	1,83	1,78

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Urtarrilaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta

Araban, 37.472 sarrera eta 67.985 ostatu-gau erregistratu dira; alegia, aurreko urteko abenduan baino % 37,9 eta % 30,2 gehiago, hurrenez hurren. Bizkaian, hazkuntza % 31,5ekoa izan da sarreretan eta % 28,9koa, ostatu-gauetan; guztira, 110.040 sarrera eta 202.744 ostatu-gau izan dira. Gipuzkoan, 2022. urteko azken hilabeteen, 92.161 sarrera izan dira, 2021eko abenduan baino % 29,8 gehiago, eta 169.451 ostatu-gau, aurreko urteko hil berean baino % 33,0 gehiago.

Hiriburuka, sarrera kopuruak % 43,2 egin du gora Vitoria-Gasteizen, % 37,1 Bilbon eta % 31,7 Donostian. Antzera, ostatu-gauen igoera, aurreko urteko abenduarekin alderatuta, % 33,8koa izan da Vitoria-Gasteizen, eta % 35,3koa bai Bilbon bai Donostian.

2022ko abenduko batez besteko egonaldia 1,84 egunekoa izan da Euskal AE osoan, 2021eko hil berekoaren oso antzekoa, 1,85 egunekoa izan baitzen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Abendua 2022

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2022/12	p.p. *	2022/12	p.p. *	2022/12	m/m-12 (%)	2022/12	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	44,2	8,0	50,8	8,2	79,40	7,5	40,34	28,2
Araba/Álava	45,9	7,4	55,0	6,6	72,23	5,3	39,74	19,8
Vitoria-Gasteiz	47,7	7,2	58,8	6,1	65,08	8,9	38,24	21,5
Bizkaia	42,9	6,9	49,7	6,4	78,45	9,4	38,95	25,7
Bilbao	48,6	10,1	55,0	10,1	83,75	9,6	46,06	34,1
Gipuzkoa	45,3	9,7	50,7	10,9	83,50	5,8	42,33	34,6
Donostia / San Sebastian	49,4	9,3	53,7	10,5	92,47	4,3	49,68	29,7

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Urtarrilaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2022ko abenduko okupazio-maila, Euskal AEn, oro har, plazen arabera neurtuz gero, % 44,2koa izan da, eta % 50,8koa, gelen arabera neurtuz gero. 2021eko abenduarekin alderatuta, ehuneko 8,0 eta 8,2 puntu areagotu dira, hurrenez hurren.

Errentagarritasuna, ADR edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtua, Euskal AE osoan, 79,40 eurokoa izan da 2022ko abenduan; alegia, % 7,5 areagotu da, aurreko urteko abenduaren aldean. Gipuzkoaren kasuan, 83,50 eurokoa izan da ADRa; Bizkaian, 78,45 eurokoa, eta, Araban, 72,23 eurokoa. Hiriburuka, aldeak handiagoak dira; izan ere, ADRa 92,47 euro izan da Donostian, 83,75 euro Bilbon eta, azkenik, 65,08 euro Vitoria-Gasteizen. RevPar edo hileko gela eskuragarriko diru-sarrerak, Euskal AE mailan, 40,34 euro izan dira 2022ko abenduan, aurreko urteko hil berean baino % 28,2 handiago.

Informazio-oharra

Hotelen ETHIren estaldura % **79,7**koa izan da 2022ko abenduan. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismoko datuen esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62